

Usoen banaketak

Hona hemen 1814-1826 urteen tartean egiten zuten banaketa. Banaketa 29 usotako multzoetatik egiten zen:

- Sare bakoitzak (4 sare)	4 uso
- Tropa nagusikoarentzat	2 uso
- Aritzako trapakoarentzat	2 uso
- Tropa giblekoarentzat	2 uso
- Domikoko abatariarentzat	2 uso
- Belateko abatariarentzat	uso 1
- Idoiagako abatariarentzat	uso 1
- Arriko abatariarentzat	uso 1
- Bertze trepakoarentzat	uso 1
- Larreko abatariarentzat	uso 1

1845. urtean trepa nagusikoari 29 usotik uso bat gehiago eman zitzaion: 3.

Abataria: hegaztiak beherazten denari ezartzen zaion deitura.

Handik urte batzuetara, 1863.enean, aldakuntza ageri da. Ordurako Iguzkiagerrea eta Gaztelua etxeokoa Sara-ren sareak bere gain hartzen hasiak ziren. Urte hartako banaketa segidakoa izan zen 12 usoetako multzoetatik:

- Iguzkiagerreak	uso 1
- Gazteluk	uso 1
- Sareetakoek (lau)	uso 1
- Trepakoek (lau)	uso 1
- Haritzako, Belatako, Idoiko eta Larreko abatariek uso erdia bakoitzak	

Lau dozena baino gehiago harrapatuz gero, trepa nagusikoak eta bigarren trepakoak uso bana gehiago hartzen zuten.

1814-26koarekin konparatuz, aldaera nabariena, behar bada, nagusiak, trepa eta sareetako berdintzea da.